

DBHko ELKARBIZITZARAKO NEURRIAK

1. Taldean integratu eta elkarbizitzeko ezagutza eta trebetasunak.

Ikasleak astero tutorearekin elkartzen dira tutoretza plana aurrera eramateko: integrazioa, talde dinamika, ikasketa teknikak, agendaren erabilera,...

Taldean elkarbizitzeko gaitasunak eta trebetasunak garatzeko orientabide-planak zenbait jarduera eta talde dinamika aurreikusiak ditu. Plan honen intentsitate handiena DBHko 1. eta 2. mailatan izango da.

Klase ordutan eta atsedenaldietan ikasleek institututik ateratzea debekatua dute. Atsedenaldietan sei irakasle eta zuzendaritzako partaide bat zaintzan egoten dira.

2. Denentzako diren eremuetan irakasleak bertan egotea eta zaintzea

Ikasleak lasai sentitzeko neurrietako bat denentzako diren eremuetan irakasleak bertan modu aktibo batez egotea da:

a) Korridoreak eta klase aldaketak: Lehenengo eta bigarren txirrinen artean geletatik sartzen eta ateratzen ari diren irakasleek korridoreak zainduko dituzte.

Zaintza burutu behar duten irakasleek, bigarren txirrina jo ondoren, ikasleak dagokien geletara zuzenduko dituzte. Gainontzeko irakasleak igo aurretik zaintzako irakasleak korridoretan egongo dira.

Irakasleen hutsegiteak bete ondoren txanda hortako zaintzako beste irakasleak korridoretatik behin baino gehiagotan pasatuz ordena zainduko dute eta sortzen diren gertakariez arduratuko dira.

b) DBHko jolas-orduak: jolas-orduak zaindu behar dituzten irakasleek patio eta denentzako diren eremuetako zainketaren zereginak banatuko dituzte, sor daitezken gertakariak bideratu eta ikasleak eskola esparrutik ez ateratzeko .

c) Jangela: Jangela zerbitzua dagoen garaian irakasle arduradun bat dago. Gora behera guztiak arduradun honek bideratzen ditu eta zuzendaritza taldearekin harreman estua du. 50 ikasleko begirale-zaintzaile bat dago.

d) Jarduera osagarriak: egun bateko irteera bat antolatzen denean 20 ikasleko gutxienez irakasle bat joango da.

e) Institutuko sarrera eta irteerak: Zuzendaritza Taldea institutuko ikasleen sarrera eta irteeren jarraipena bideratzeko ardura du, bereziki institutuko pertsonak ez direnengan arreta berezia jarriz eta behar den kasuan dagokion erakunde eta autoritatearekin harremanetan jarriaz.

3. Tutore eta familien arteko harremanak.

Ikasleen jarraipenaren ardatza guraso eta tutoreen arteko harremanetan dago. Ikastetxea eta familiaren arteko informazio trukaketaren oinarria tutorea eta familiaren arteko bileretan dago. Informazio trukaketak hezkuntza prozesuan aldeko ondorio nabarmenak izaten ditu. Hau kontuan hartuta, tutoreek famili guztiarekin bilerak izaten dituzte, eragozpenak jartzen dituzten familiekin ere bai.

Tutoreak erabakitzen duenean gelako irakasle taldea biltzen da, eta bertan laguntzen beharrak, ikasleen orientabideak eta irtenbideak zehazten dira. Informazio hau familiekin egiaztatzen da.

Tutoreek familiei ikasleen hutsegiteak azaltzen dizkiete eta justifikatu gabeko hutsegiteak ugaritzen direnean, Ikasketa Burutzatik informazioa idatziz bidaltzen zaie familiei.

4. Portaera desegokiagatik neurri zuzentzaileak

Ikastetxeko irakasle guztiek dute horrelako portaerak berehala zuzentzeko eskumena. Prozedura honakoa da:

a) Ahozko kargu-hartzea. Nolanahi ere, neurri hori metagarria izan dadin lortu nahi badugu, idazki batean jasoko dugu, jarraian zehaztutakoari jarraiki.

b) Kargu-hartze idatzia: irakasleak bete egingo ditu kargu-hartze idatziari dagozkion datuak, ikasketaburuari jakinarazi ondoren (ereduaren arabera) eta portaera mota eta aplikatu beharreko neurri zuzentzailea zehaztuta, eta ikaslearen esku utziko du; jarraian, ikasleak sinatu egingo du, une horretan bertan. Kargu-hartze idatzia hiru eskola-eguneko epean itzuli behar da, ikaslearen gurasoek edo lege-ordezkariek sinatua.